



Amutxategi, Zabala, Durruty eta Iturralde, atzo Donostian. :: F.L.

Joxemari Iturralde, Juan Luis Zabala eta Abel Amutxategiren uzta berria

Haurrentzako liburu bana argitaratu dute autoreok, eta Amutxategi estreinatua egin da euskaraz

:: FELIX IBARGUTXI

DNOSTIA. Haurrentzako hiru liburu aurkeztu ditu Erein argitaletxeak: Joxemari Iturralderen 'Nire lagunak gezurak', Juan Luis Zabalaren 'Aita oker dago' eta Abel Amutxategiren 'Borbontzi'. Gutxi gorabehera, zazpi eta hamahiru urte bitarteko neska-mutikoen-tzat dira egokiak.

Joxemari Iturralde ibilbide luzea egin du haur eta gazte literaturan. Oraingoan, ardatz moduan gezurra duen liburua osatu du, marrazkiak Estibalitz Jalónnek egin dizkiolarik. Hone-lamintzatu da aurkezpenean: «Zazpi eta hamahiru urte bitarteko tarte hori asko interesatzen zait. Liburu asko daukat idatzita horrelako irakurleentzat.

Adin horretan, haurrek badakite munduan gezur asko dagoela. Esaten diete umeak Paristik datozela, Errege Magoek ekar-tzen dituztela opariak, jendea betiko ezkontzen dela... Eta ikusten dute helduei aurre egiteko ama bakarra gezura dutela. Adin horretan, neskak azkarra hazten dira eta lehenago hasten gezurretan mutilak baino, baina gero laster pareka-tzen dira batzuk eta besteak».

Juan Luis Zabala ez da hasiberria. Kazetari honek baditu lehenik hau-

rentzako lan batzuk, eta oraingo liburua Begoña Durruty marrazkilariarekin batera burutu du. Artelekuko mintegi batean ezagutu zuten elkar eta ez da lehenbiziko elkar-lana. «Gauetz nire seme Xubani irakurtzeko, hasi nintzen liburuko istoriook asmatzen. Badute puntu komun bat: protagonistetako bat, aita, askotan gelditzen da barregarri, eta horrek Xubani grazia handia egiten zion», esan du Zabalak. Zenbaitetan, semea txertatu egin du istorioetan, eta hark pentsatutako egoera eta istorioez ere baliatu da; baita hark asmatutako hitzez ere, adibidez 'lapurtaina'.

Orain dela urte gutxi batzuk, ahalgina egin zuen Zabalak haur eta gazte literaturan mugitzeko. «Hasi nintzen liburua irakurtzen... baina laster konturatu nintzen astirik ez neukala eguneroko lanaz gain ezertan hasteko».

Abel Amutxategi, berriaz, aurpegi berria da euskal panoraman. Bilbon 1978an jaioa, bazituen lehenik gaztelaniazko istorio batzuk han-hemen publikatuak, baina 'Borbontzi' hau du lehenengo euskal lana haur eta gazteentzako literaturaren esparruan. Oribidez informatikaria den gizon honek fantasiako liburu idatzi du, marrazkiak Manu Ortegak egin dituelarik. Ipuineko protagonista nagusia Nora izeneko neskatila da. Ez zaio ezertxo ere gustatzen ipuinak irakurtzea, baina halako batean Borbontzirekin egiten du topo, papera jaten duen izaki miragarria. Badu ahalmen harigarri bat Borbontzik: papera jan ostean fantasiako munduak sortzeko gai da.

'Aux Magazine'-ko kolaboratzailean izan da urte askoan, batez ere literaturaz idatzi duelarik.

**NIRE LAGUNAK
GEZURAK
JOXEMARI
ITURRALDE**

Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 110.
Prezioa: 10,30 euro.

**TAITA OKER DAGO
JUAN LUIS
ZABALA**

Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 87.
Prezioa: 8 euro.

**BERBONTZI
ABEL
AMUTXATEGI**

Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 102.
Prezioa: 10 euro.

BLOODY MARY & I WANNA MANAGEMENT PRESENTAN // AURKEZTEN DUTE

AZARDAK SÁBADO 22:00 **FIGOBA (IRUN)**
NOVIEMBRE LARUNBATA 8 18/20€ (15€ ANTES DEL 1 DE NOVIEMBRE AZARDAK 1 BAJO LEHENAGO)

3. IRUN ZUZENEAN

NIKKI HILL (USA)

DAVE ALVIN & PHIL ALVIN
WITH THE GUILTY ONES (USA)

(IRIBAD) **LAST FAIR DEAL**

AURRE SALEMENTA // COMPRA ANTICIPADA
BLOODY MARY ETA WWW.ENTRADAS.DIARIOVASCO.COM

irun EN VIVO ZUZENEAN

I WANNA MANAGEMENT

BLOODY MARY MANAGEMENT

EL DIARIO VASCO

merc **APM** **entradas.com**

BAI HORIXE KARLOS LINAZASORO BOTILA BAT DOPING

Botila bat doping aurkitu dut mugaz haraindi baino bertarago. Uste nuen zela sagardo berria, ardo gorri nafarra, patxarara, edozein pattar, tomate-zukua, edozein zerrikeria. Baina dopinga zen. Epo, nandrolona, somatotropa, eritropreyetina, propanolol, anfetamiña, esteroide edo testosterona apurño bat? Zer horietatik denetatik? Ezen izango baitira gehiago ere, jakina. Nik ezagutzen ez, ordea. Orfidala bai, orfidala ezagutzen dut. Baina hori dopinga da? Idazteko nik ez dut beste pozoirik behar. Musek ekartzen dizkirate txokolatea eta bekaizta, nik gainerako guztia jartzen dut. Gogoa eta orfidala, pasioa eta orfidala, gaixotasuna eta orfidala. Eta argitasuna ere bai, argitasun handia. Botila honetatik tragoxka bat

hartuko banu, zer eginen nuke? Areago idatzi? Luzeago eta gehiago? Jasago eta nekerik gabe? Garaigo eta azkarra? Lirikoa? Epikoa? Fantastikoa? Zure izenaren giharrak ahantzirik? Zerekin idatziko nuke testosterona pixkatxo bat hartuko banu? Falokraziaren tiraniarekin? Zeraren punta lodi baldararekin? Utikan! Drogatzen ez bazara, askoz hobeto; asko drogatzen ez bazara, txit hobeto. Hori da nire leloa, barka, goiburua. Botila hau segada bat da, etsrosada gorrikara bat, dudarik ez daukat, baina ez naiz eroriko sarean. Molotov bat egingo dut bene-noarekin, eta aurretik pasatzen den lehen gregarioari jaurtiko diot aurrigera edo zainaren erdira, mundu guztiak nirekin garbi lehia-tu behar dela jakin dezan.